

## **4.ELKARTEA:**

Enpresa batean hainbat helburu dira funtsezkoak beste enpresekin itunak egiterakoan.

Hasteko, gure produktua errentagarriagoa ateratzeko, hau da, merkeago eta kalitate hobetuegia izateko, beste enpresa batzuekin harremanetan jartzea beharrezkoa da, honi, negozio-eredua optimizatzea deritzo. Eta hau oso lagungarria da, beste enpresek egingo dutelako hain funtsezkoa ez dugun lan hori.

Horretaz aparte, beste enpresen laguntzarekin, gure produktuaren arriskua murriztuko genuke haien esperientziaren laguntzarekin, produktua ez kanporatzea lortuko genukeelako kontuan izanda haiek erabilitako konponentea iraunkorrago eta kalitate hobetuegia izango litzatekeelako.

Bukatzeko, bi enpresen artean aliantza bat sortu gero, produktibitatea igoko litzateke enpresa batek besteari konponenteak salduko lizkioke enpresa bere errekurtsoak beste ekintza batzuetara bideratuz.

Gu, gure plana aurrera eramateko beste enpresa batzuekin harremanetan jartzen hari gara aurretik esandako guztia lortzeko eta gure produktuarekin oso urrun irizteko ROLEX eta CASIO enpresekin esate baterako.

### **4.1 Rolex enpresa**

Gure ideia aurrera eramateko, Suitzako Rolex erlojugintza enpresarekin kontaktuan jartzea erabaki dugu, bere marka munduan zehar gero eta gehiago zabaltzeko oso erabilgarria delako, alde batetik beraien onurako eta beste alde batetik gure onurarako hain famatua den enpresa batekin harremanetan gabiltzalako. Rolex enpresa gure produktuarekin aurrera egitea erabaki dute horrelako ideia bat buruan zutelako iada, eta orain gurekin batera oportunitate ikaragarri eta ezin hobea izango dute honelako teknologia berri batekin lan eginez, jendearen bizitza erraztea eta antolatzea lortuz "Daily watch" erlojuarekin.

### **4.1 Casio enpresa**

Japoniako Tokio hiriburuko elektronika osagaietan espezializatutako korporazio multinazionalarekin harremanetan jarri gara, eta Euskal Herrian erloju eta kalkulagailuengatik bakarrik ezaguna izan arren, beste batzuetan dago ere espezializatuta eta hori Euskal Herrian zehar zabaltzea lortuko dugu guztion artean lagunduz gero, guztiak onurak bakarrik irabaziz edo lortuz.